

Bezeroak informazio gehiago jasoko du hipoteka sinatu aurretik. XABIER MARTIN

# Indarrean da hipoteka lege berria, bezeroak babes handiagoa eduki dezan

Notarioak informazio gehiago eman beharko dio bezeroari, hark hipoteka ulertu duela ziurtatzeko • Zailagoa izango da jendea etxegabetzea

Xabier Martin

Notarioarekin bilera bat egiteko hitzordua jasotzen ari dira atzodanik hipoteka bat sinatu beharduten bezeroak; beste eragilerik gabeko hitzorduetan dira, bankuen ordezkariak gabe alegia, urteasko irauengo duen kontratua ondo ulertu dela ziurtatzeko. Bezeroak hipotekaren baldintza guztien berri duela ziurtatu behardu notarioak, letra txikia barne, hala agintzen baitu atzo indarrean sartu zen hipoteka legeak.

Notarioari sinatzekoa den hipotekaren informazio osoa igortzeko betebeharra du bankuak, beraz, eta hark ulermen test bategin behar dio bezeroari. Iraganeko etxebizitza salmenta handiaren harira, finantza entitateek eraginadako zurgabetasunari muga jartzeko onartu zuten lege berria aurtengo otsailen; aurretik, Europako Batasunak Espalnia behin baino gehiagotan lotsegorritu du bankuen eskandaluak eta gehiegikeriak direla eta.

## INFORMAZIO ESKUBIDEA

Ezer sinatu aurretik, bezeroak kontratuaren ziritiborroa esku artetan izan beharko du hama egun lehenago. Bankuak bi dokumentu helarazi beharko dizkio: Informazio Estandartzatuen Europako Fitxa (ESIS) eta Ohartarazpen Es-

tandarizatuen Fitxa (FIAE). Bankuak aztertu beharko du maillegu eskatzailearen kaudimena, gas-tua bankuak berak ordainduta. Ordaindu ezin dutenei hipotekak ematea eten nahi dute horrela.

## NOTARIOAREN LANA

Notarioak bezeroari aholkularitza eman beharko dio, dohainik, kontratuari eta bertan jasotzen diren klausulei buruz. Eskatzaileak galdetegi bat erantzun beharko du hipotekaren nondik norakoak ulertzen dituela egiaztatzen. Behin gaitunduta, agiria sinatu beharko du kontratu aurreko dokumentazioa jaso eta ulertu duela baieztatuz. Horrez gain, notarioak egiaztatuz beharko du hipotekak ez daukala Auzitegi Gorenak indargaberritako klausularik.

## KONTRATUAREN GASTUAK

Etxebizitza tasatzeko kostua baskarrik geratuko da bezeroaren esku -300 eta 400 euro artean, gehienetan-, eta finantza erakundeek hartuko dituzte bere gain notario-tza gastuak, erregistroarenak eta kudeatzailearenak -1.000 eta 3.000 euro artean-.

## ZORUKLAUSULEN AGURRA

Hipoteka legeak debekatu egingo du kontratuan zori klausulak sartzea. Horrela, interes aldakortra daukaten kredituetan ban-

kuek ezingo dute gutxieneko interes bat finkatu. Bezeroak Eurborraren edo hura ordezkatu behar duden indizearen jaitsierak baliatu ahal izango ditu arau berritarrekin. Hala ere, inoiz ezingo da negatiboa izan; hau da, gutxienez %0 izango da.

## BESTE PRODUKTUAK


Aurrerantzean bankuek ezingo dizkiete hipotekari lotuta produktu gehiago inposatu bezeroei. Hori bai, eskaintzen jarraitu dezakete. Banku askok hobariak ematen dituzte hipotekarekin batera beste produktu batzuk kontratatzeagatik. Orain, ordea, mailguaren kostua soilik dakarren aurrekontu bat eskaini beharko diote bezeroari.

## ETXEGABETZEAK

Legeak gehiago babestuko ditu hipotekatuak bahimendu kasuan. Lehen, kredituaren lehen erdian hiru hilabete ez ordaintzea nahikoa zen hipoteka exekutatzeke. Orain, etxegabetea abiatzeko, ordaindu gabe egon behar da hamabi hilabete, edo utzitako diruaren %3. Mailguaren bigarren erdian bada, hamabost hilabetez kuota ez pagatzea edo mailguaren %7 ordaintzeke izatea izango dira baldintzak etxegabetezko prozesu bat indarrean jartzeko.

## Aurtengo lehen hegaluzea Ondarroan porturatu da: 10,5 tona, kiloa 5,60 euroan

**ONDARROA** • Aurtengo lehen hegaluzeak atzo saldu zituzten Ondarroako Kofradiako enkantean. Denera, 10.500 kilogramo atunzuri porturatu zituzten, eta kiloa batez beste 5,6 euroan saldu zuten. Atunzuri ertainak ziren gehienak (9.500 kilo), eta kiloa 5,40 euroan saldu zuten; hegaluze handiaren kiloa, berriz, 9,30 euroan saldu zuten (500 kilo); eta txikia (500 kilo), batez beste bi euroan. Gaur hegaluze gehiago espero dute euskal portuetan.



Rolls-Royceren hegazkin motorrak. WALLACE WOOD/ EFE

## ITPk Rolls-Royceren motor berriarren turbina bideratzea lortu du

**PARIS** • ITP Aero euskal konpainiak iragarri du Rolls-Royceren Ultra-Fan motor berriarren turbina arrakastaz bukatu duela. 2015etik ari da turbina horrekin Europako ekimeneko proiektu baten barruan, 43 milioi euroko aurrekontuarekin. Hegazkin motor berritarrekin %25 erregai gutxiago beharko dute oraingoek baino, eta soltu gutxiago aterako dute, gainera.

# 89.200

## HUAWEIK SALTZARITZIKO DION MILIOI EURO KOPURUA

Huawei-en kontseilari ordezkari Ren Zhengfei onartu du AEBen betoak nabarmen jaitzaraziko dituela konpainiaren salmentak. 2019. eta 2020. urteetan 89.200 milioi euro fakturatzeari utziko dio Huawei, hau da, 2018arekiko %10 gutxiago salduko du.

## Sindikatuak eutsi egin diete Bizkaiko metalgintzako grebarako deialdiei

**BILBO** • ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak ez dute onartu FVEM Bizkaiko metalgintzako patronalako sektoreko ituna berritzeko egin dien azken proposamena, eta, horrenbestez, greba deialdiei eutsi diete. Ekainaren 20an eta 21ean, beraz, lanuzteak egongo dira bertan, patronalaren proposamena «ez delako nahikoa izan». Metalgintza lan-gile gehien duen sektorea da Bizkaian: 50.000 behargin.

## LAB sindikatuak hitzarmen kolektibo bat nahi du etxeko zaintzaileentzat

**BILBO** • Eusko Jaurlaritzak, Confepask eta beste sindikatuak etxeko zaintzaileentzako itun kolektiboa adosteko mahala eratzera deitu ditu LAB sindikatuak. Sektore horretako emakume langileen prekaritatea «onartezina» dela esan du LABeko idazkari nagusi Garbiñe Aranburuk, eta lan ituna adosteko mahala uda ostean eratzeko proposamena egin die gainontzeko eragileei.